**Ixabel Millet**

Vestida de frío

No caserío Olaberri, eslombado sobre o seu pequeno leito, Mari tentaba afundirse máis e máis baixo a manta. Tiraba dela por tódalas esquinas, estirándoa con forza, de xeito que lle permitira cubrirse dos pes á cabeza, e poder agocharse, desaparcer baixo ela.

Sentía frío, moito frío. Un frío que lle subía por todo o corpo, bruscamente.Polas mans, as tiña xeadas, polos pes, estaban conxelados, e polo pelo, aquel pelo como de xeada que sempre se lle ourizaba rebelde por baixo da manta.

Un día, nunha noite sen estrelas, farta de pelexar contra a súa propia melena, cansa de non poder dominala baixo da manta, tomou unha decisión:

Este pelo non me deixa descansar... ¡vou cortalo agora mesmo, compre que durma tranquila dunha vez por todas! –e buscou unhas tesoiras que gardaban no baño–.

Eran unhas tesoiras longas e afiadas, poderían cortalo aire que respiraba. Ben o sabía, porque as empregara anteriormente, para arranxalo ventre da súa moneca Rosa. Daquela, Rosa non se atopaba moi ben. Mari a veía sufrir, e entristecía profundamente, polo que decidiu cortarlle de raíz aquilo que tanta dor lle provocaba. De xeito agarimoso, segoullela parte máis torneada das coxas. Logo, colocoulle unha gasa e tendeuna sobre a cama, para descansares.

Mari, na punta dos pés fronte do espello, comezou a cortalo seu longo e crecho pelo. Logo dun anaco, empezou a sentirse mellor. Pouco despois, case perdera tódolos seus trazos de muller. Agora si, agora si podería durmir en calma.

Mari nacera oito anos antes, o 15 de agosto. Foi bautizada con ese nome en homenaxe á Virxe. Este ano, como agasallo, pedira unha manta.

A súa nai mirouna incrédula, e tentou convencela de que non necesitaba outra manta máis. Pero Mari empeñouse en explicarlle que con aquela non chegaba a cubrilo corpo enteiro, e que pasaba frío. Foi en balde.

Ó fin, resignada, entendeu que o mellor sería pedirlla ó Olentzero(1) –unha manta ben grande, moi quente e lene–, barruntando que el a entendería.

De noite, introducíase no niño do seu leito, e encollía o seu corpo ata menguar como unha moneca. Pero axiña púñase a tremer, e sentía como o frío lle subía por todo o corpo. Polas mans, polas pernas e polo pelo, por moito que tentara evaporarse baixo a manta. Amodo, escondía a súa cachola, e era entón cando o frío apertábase sobre os seus ombreiros.

Xusto nese intre, deixaba de loitar, e precipitábase contra a escuridade da noite. O frío, pouco a pouco, anestesiaba tódolos seus músculos, e só se preguntaba cando deixaría de lacerarlle o xeo da súas costas. Cedía o tremor, derrotada polo frío, ó fin, xa non sentía nada.

De súpeto, como adiviñando un terrible acontemento, despertou cos ollos violentamente abertos.

O frío era insufrible. Era unha man xélida esvarando ó interior dos seus cueiros. Era unha voz crúa supirandolle palabras estrañas e virulentas.

Polas mans, polas costas e polo pelo, o frío sobordaba os seus ombreiros e lle encadeaba os osos, o mesmo eixe da súa alma. Entón iniciábase a caída ó escuro precipicio da noite, e seguindo o habitual adestramento nocturno, ferida polo frío, unha vez conseguía deixar de tremer, só se preguntaba cando remataría de ferirlle o xeo das súas costas e, ó fin, xa non sentía nada.

O seu tío sempre tentaba farcello entender. Que ela aínda era pequena, e que non podía entendelo... Explicáballe que facía o que facía porque a quería. E engadía que non llo contara a ninguén, porque a xente non adoita a entendelas cousas do amor. E moito peor, poderían malinterpretala, e poderían mesmo acusala de mentireira, e entón, seguro, que a enviaban a un internado.

Por iso, Mari non contaba nada. De tódolos xeitos, xamáis falaba moito, e as veces que o facía ningén entendía ó que se refería, como tampouco entendían porque curtara o pelo daquel xeito. Por veces, co pretexto do frío, limitábase a pedir unha manta máis grande, quente e lene para o seu leito.

No caserío Olaberri, aniñada no seu leito pequeno, Mari morría de frío. Era o seu cabelo algo moi frío. Polas mans, polas costas e polo pleo, o frío rebordaba os seus ombreiros e se encadeaba no mesmo centro do seu peito. Entón, empezaba a non sentilo seu corpo, vestida de frío, xa non sentía nada. Precipitábase bruscamente contra aquela escuridade, só se preguntaba cando lle deixaría de ferir o xeo das súas costas.

Cada noite, Mari facíase as mesmas preguntas, ca esperanza de que algún día o seu cabelo deixaría de ser tan frío; seu corpo recobraría a serenidade acostumada; as noites voltarían ser temperadas; por fin entendería todas aquelas cousas que lle decía seu tío que non podía entender; e algún día tería esa manta máis grande, máis quente e lene...

Mari tan só era unha rapaza e aínda non podía comprender moitas cousas, pero xa sabía que nunca tería unha manta nin máis grande, nin máis quente, nin máis lene... Poida que, como decía seu tío, aínda fora pequena de máis para poder entender aquelas cousas que ninguén podería entender, pero había tempo que sabía que Olentzero non existe.

---

1 Personaxe do País Vasco, que representa a noite de Nadal e o solstico de inverno.

Traducido do vasco por Iratxe Retolaza.

Hortzburuan

Olaberri baserrian, bere ohe txikian, Mari manta azpian sartzen saiatu zen berriz ere. Izkinetatik tiraka, manta ahalik eta luzeen egiten saiatu zen, ile guztiak estaltzekotan, manta azpian ezkutatzeko asmotan, manta azpian desagertu nahian.

Hotzak zegoen. Hezurretaraino sartzen zitzaion hotza. Hotza zuen eskuetan, hotz oinetan, baita ilean ere, ile managaitz hartan, manta azpitik atereaz lazten zitzaion ilean.

Behin batean, izarrik gabeko gau batean, ile kontrako etengabeko borroka baten ostean, ileak manta azpian mantendu ezinean, erabakia hartu zuen:

- Ile hauek ez didate lo egiten uzten... eta moztu egingo ditut, horrela lasai ederrean lo egingo dut! –eta bainugelara joan zen guraizeen bila–.

Guraizeak luzeak eta zorrotzak ziren, eta oso fin mozten zuten. Ongi zekien hori, egun batean bere panpina Rosaren sabela konpontzeko hartu baitzituen. Garai hartan, Rosa gaixo zegoen. Mari, sufritzen ikustean, oso triste jartzen zen, eta horregatik mina egiten ziona kentzea erabaki zuen. Orduan, oso suabe, hanka arteko haragi borobila moztu zion. Ondoren, gasa paratu eta ohean sartu zuen atseden har dezan.

Mari, oin-puntetan, ispiluaren aitzinean, bere ile luze eta kizkurrak mozten hasi zen. Handik pixka batera, hobeto sentitzen hasi zen. Beranduago, neska itxura ia galdua zuen. Orain bai, lasai lo egin ahal izango zuen.

Zortzi urte lehenago jaio zen Mari, abuztuaren 15ean. Ama Birjinaren ohorez jarri zioten izena.

Aurten, opari gisa, manta berri bat eskatu zuen.

Amak harridura handiz begiratu zion, eta bere mantarekin ezin zuela hotzik izan erantzun zion. Mari saiatu zen amari azaltzen manta horrekin ezin zuela gorputz osoa estali, hotza zuela. Baina alferrik.

Azkenean, amore emanez, behar zuen manta –handi, bero eta samurra– Olentzerori eskatuko ziola erantzun zuen Marik, hark premia ulertuko baitzuen azalduz.

Gauean, ohearen kabian sartzen zen, ahalik eta txikien bihurtuz. Baina berriro ere dardarka hasten zen, hotzak zegoen. Ileetan ere hotza zuen, ileak manta azpian mantentzeko borrokatu arren.

Gutxika-gutxika, iletatik sartuta, hotza bizkarrean zabaltzen zitzaion.

Orduan, borrokatzeari utziz, gauaren iluntasunean erortzen hasten zen. Hotzaren poderioz, gorputza gero eta gutxiago sumatzen zuen, bere sorbalda ea inoiz izoztuko zen bere buruari galdetuz. Dardara gelditzen zen, eta hotzburuan, ez zuen ezer sentitzen, azkenik.

Bat-batean, zerbait izugarria gertatzear zegoela sentituz, begiak zabal-zabalik zituela ernatzen zen.

Hotza izugarria zen. Bere kuleroan sartzen sentitzen zuen eskua hotza zen. Hitz harrigarriak eta izugarriak arnasestuka xuxurlatzen zituen ahotsa hotza zen.

Orduan, iletik sartuta, sorbaldatik jaitsiz, hotza bizkarrean zabaltzen zitzaion, hezurretaraino, bihotzeraino. Gauaren iluntasunera erortzen hasten zen, eta gaueroko entrenamendua jarraituz, hotzburuan, dardara gelditzen zenean, bere sorbalda ea noiz izoztuko zen bere buruari galdetuz, ez zuen ezer sentitzen, azkenik.

Osabak askotan azaldu zion. Bera txikia zela, eta ezin zuela ulertu... Askotan esplikatu zion, egiten ziona maite zuelako egiten ziola. Baita inori ez kontatzeko gehitu zuen ere, jendeak ez zituelako maitasun kontuak ulertzen. Edo larriago, jendeak oker uler zezakeela eta gezurtia zela errango zuela, eta orduan, ziur, barnetegi batean sartuko zutela.

Beraz, Marik ez zuen ezer erraten. Dena den, gutxitan hitz egiten zuen, eta gehienetan jendeak ez zuen ulertzen zertaz ari zen, ilea zergatik moztu zuen ulertzen ez zuen bezala. Noizbehinka, hotza zuela erranez, manta handiago, beroago eta samurrago bat eskatu baino ez zuen egiten.

Olaberri baserrian, bere ohe txikian, Mari hotzak zegoen. Ilean ere hotza zuen. Gutxika, iletik sartuta, hotza bizkarrean zabaltzen zitzaion, bihotzeraino. Orduan, gero eta gutxiago sumatzen zuen gorputza, eta hotzburuan, ez zuen ezer sentitzen. Iluntasunera erortzen zen, bere buruari galdetuz, bere sorbalda ea noiz izoztuko zen, azkenik.

Gauero, Marik bere buruari galdera berak egiten zizkion, ilean zuen hotza ea desagertuko zen; barruko dardara ea desagertuko zen; gaueko hotza ea bukatuko zen; osabak erraten zuen bezala inork ulertzen ez zituen gauza horiek ea noizbait ulertuko zituen; manta handiago, beroago eta samurragoa ea edukiko zuen...

Txikia zen Mari eta gauza asko ez zituen ulertzen, baina jakin bazekien manta handiago, beroago eta samurragorik ez zuela izango... Osabak erraten zuen bezala inork ulertzen ez zituen gauza horiek ulertzeko txikiegia zen, agian, baina aspalditik bazekien Olentzero ez zela existitzen...